

Barbie hauteskundeetan



ANUNTXI ARANA
ANTROPOLOGOA

Arropa bera luzaz eramatea ez da ongi ikusia, eskasa-edo dateke. Behin, lagun irakasle bati lizeoan ohararazi zioten bazela ordua jaka berria eros zezan. Aspaldiko joera hori indartuz joan da. Telebistako esatari eta berriemaileek jantzi desberdinak luzitzen dituzte egunero. Mikel Aiestaran salbuetsia dela ematen du (biba!), baina susmoa dut emakumeak behartuak direla oinak sartzeko metatartsoak martirizatzeko dizkieten takoi-zapatetan.

Politikari anitzek ere biziki zaintzen dute kanpo itxura, modari kartsuki jarraituz. Ulertzen da, denen eskubidea da dotore eta pinpirin azaltzea. Aldiz, ganoragabekeria da etengabe arropa estreinatzen ibiltzea, eta halako ohitura dute Hego Euskadiko politikari zenbaiten –zoritzarrez emakumeek gehiago ezagun dute–. Batzuetan Barbie oroitarazten dute, propio soinekoa aldatzeko pentsatua den panpina. Eskuinekoak bakarrik balira, gaitz erdi, gauzen ordenan lirateke. Kezkak hasten dira antzeko jaidura hautematen denean hainbat abertzale, ezkertiar, aurrerakoi jenderengan. Eta fenomenoaren bere goieneko

Ikusiko al dugu
hauteskunde kanpaina
bizpahiru jantzitan
egiten duenik?
Bizitza ez baita
Barbilandia, eta mundu
erreal honek ez dezake
gehiago moda
azkarra eraman

mailara iristen da hauteskundeetako ekitaldietan, modelo erakusketa bilakatuak.

Esango digute maileguz hartuak direla jantzi horiek eta, bota gabe, berriz salmentako zirkuituan sartzen direla. Pena da bigarren eskuko merkatua ere kontsumoa delako, berkontsumoa eta, batez ere, ez duelako estereotipotik ateratzen eta soinekoz aldatzeko irrika

konpultsiboa galarazten; aitzitik, hartara daraman eredia irauaraz lezake.

Finean, *Black Friday*-etako frenesiak ez du etenik, haren aurkako salaketak alferrik urtzen dira eta sunsiketarako aurrera segitzen du. Arropa berriari bide emateko, zaharra ez dena ere armairutik hustu eta badoa Afrikara edo Amerikara, zabortegi munstroak betetzera. Ez hori bakarrik. Moda industriak lehenik langileen esplotazio ankerra praktikatzeko du, batik bat emakumeena; eta gero planetako punta batetik bestera arropa garraiatzeko erabiltzen dituen hegazkinen berotegi efektuko gasen %8 botatzen dute atmosferara, ARGIAko 2851. zenbakian azaldu zen bezala.

Munduko agintariek ez dute gehiegikeria horiek geldiarazteko itxurarik. Baina, modaren erabiltzaile gisa, emakumeen erantzukizuna ere da sistema horri uko egitea, bereziki publikoki agertzen direnena, besteentzat eredu emaile baitira. Ikusiko al dugu kanpaina bizpahiru jantzitan egiten duenik? Bizitza ez baita Barbilandia, eta mundu erreal honek ez dezake gehiago moda azkarra eraman. ●

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen lagunduko dizugu



SIGACUS

© 943 453 588 · www.sigacus.com



LUA arkitektoak

ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA

www.luark.com

948132697 - Arga ibaiaren kalea 28-30 Irutia



MANU ROBLES-ARANGIZ INSTITUTUA

ARGIA

BERDEA DA MORE BERRIA

LIBURUA SALGAI! 14€

AZOKA.ARGIA.EUS

943 37 15 45